

Break-dancea eta antzerkia haurrentzat

Intxaurdantza antzerki taldea gogor ari da lanean Intxaurrondoko gaztetxoentzako ekintza ugari antolatzen. Abuztuan, taldeak break-dance eta antzerki ikastaropak egingo ditu.

Unai Zubeldia

Intxaurrondon, beste hainbat auzotan gertatu ohi den moduan, ez da ekintza askorik izaten 6-15 urte bitarteko haurrentzat. Marta Karlos eta Marta Olalde Intxaurdantza taldeko arduradunak dira eta beraien hitzetan, "askotan haurrak betiko ekintzetera mugatzen ditugu, baina beraien nahi dutena egiten utziz gero, hurrek gauza asko eta oso politak egiten dituzte. Sa-

rritan haurrak helduoi gauza asko erakusteko gai dira".

Intxaurdantza antzerki taldea osatzeko ideia Intxaurrondo ikastolan sortu zen. Hainbat lagun elkartu ziren eta taldea sortu zuten.

Bi arduradunek adierazi digutenez, "Intxaurdantza antzerki taldean parte hartzeko ez da beharrezkoa dantzari edo abeslari iaioa izatea, nahikoa da zerbait egiteko gogoia izatea. Hori da hasieratik dugun ikuspegia".

Udan ere buru-belarri ari da lanean Intxaurdantza. Ekaina-



Intxaurdantza taldea da ekimenaren bultzatzailea

ren 22an Graffiti festa antolatu zuten, eta ekimenak harreara bikaina izan zuen auzoko haurren artean. Taldeko arduradunek esan digutenez, "aurretik hitzaldi bat eskaini genien graffitiaren nondik norakoak azaltzeko, eta ondoren gaztetxoek lan zoragarriak egin zituzten".

Ekintza horren arrakasta ikusita, beste hainbat antolaketza erabaki zuten Intxaurdantza antzerki taldekoek. Uztailaren 20an eta 21ean break-dance ikastaroa antolatu zuten, baina aukera hura galdu zutenek, abuztuaren 3an eta 4an beste break-dance-a ikastaro bat izango dute. Horrez gain, abuztuaren 10ean eta 11n antzerki ikasta-

roak izango ditugu 11 urtetik gorako gazteentzat. Ikastarootan izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko 943-282546 edo 646-670843 telefono zenbakietara hots egin daiteke.

Lanean gogor ari diren arren, zenbait oztopo eta zailtasun izaten dituztela azpimarratu digute Intxaurdantza taldeko kideek: "Kultur etxeek, ikastolek... ez dute interesik modu honetako ekintzak plazaratzeko, eta une oro laguntza ukatzen digute. Plazara Goaz eta Iparhaizea taldekoek hainbat lanetan lagundu gaituzte, baina, orokorrean, ez dago gurearen moduko taldeei laguntza emateko borondateirik".



Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza
obra social